



EUSKALTEL TALDEAREN KUDEAKETA-SISTEMA INTEGRATUAREN POLITIKA POLÍTICA DEL SISTEMA DE GESTIÓN INTEGRADO DEL GRUPO EUSKALTEL

Estatuaren iparraldeko telekomunikazio-talde nagusia da Euskaltel. EAEn, Galizian eta Asturiasen ondo errotuta dago, eta lurralde horiekiko konpromiso sendoari eusten dio. Merkatu horietan jarduten du, Euskaltel, R eta Telecable operadoreen bidez.

Euskaltel Taldearen politika guztiak hartzen ditu barne Euskaltelen kudeaketa-sistemak, zeina kudeaketa aurreratuarekiko eta gizartearekiko eta bere ingurunearekiko duen konpromisoan baitago oinarrituta. Beharrezkoak dira politika horiek bezeroa gogobetetzeko, ingurumena zaintzeko eta hobetzeko, arrisku-mota guztiak kudeatzeko eta pertsonen ongizatea bermatzeko.

Politika horren bidez, gure produktuak, zerbitzuak, lan egiteko erak eta kudeaketa-sistema etengabe hobetzeko konpromisoa gureganatzen dugu, alor guztietan hobeto jarduteko.

Konpromiso hauek bereganatzen ditu Euskaltel Taldeak politika horrekin:

- Aplikatu beharreko legedia, araudia eta gainerako baldintzak betetzea, bai eta kudeaketa-sisteman hartzen ditugun beste zenbait konpromiso ere.
- Merkatutik eta gainerako interes-taldeetatik hurbil egoteko eta haiei etengabe entzuteko jarrera izatea, haien nahiak eta beharrak ahalik eta ondoen asetzeko proposamenak bereizteko eta egiteko.
- Ingurumena babestea, klima-aldaketari aurre egitea eta poluzioa prebenitzea, bai eta konpainiaren jardueren ingurumen-inpaktua murrizteko politikak martxan jartzea eta ingurumen-jardunbide egokiak sustatzea ere.
- Enpresarentzat lan egiten duten pertsona guztien osasuna babestea eta jasan ditzaketen kalteak aurreikustea; halaber, lan-eremu osasungarriak babestea eta sustatzea, behar diren informazioa eta trebakuntza emanez langileen parte hartzea sustatzeko eta arau eta jarraibideak betetzeko eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.
- Ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-alderdiak aintzat hartzen dituen kudeaketa-sistema bat hedatzea.
- Gure jarduerak enpresan ezarritako balioekin bat etortzea.
- Politika honekin bat datozen helburuak ezartzea hala dagokien alor guztietan, eta helburu horiek aldizka berrikustea eta egokitzea.
- Enpresaren barruan eta merkatuan berrikuntza sustatzea, eta une bakoitzean egokienak diren teknologiak erabiltzea gure xedea betetzeko.

Politika hori gure jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie, gure lantoki guztietan. Halaber, erakunde guztiari jakinarazi behar zaio, baita akziodunei, alderdi interesdunei eta, oro har, jendeari ere, eta berrikusi egin behar da, aldizka, Euskaltelentzat egokia dela egiaztatzeko.

Euskaltel es el Grupo de telecomunicaciones convergente líder del norte del Estado, manteniendo un fuerte compromiso y arraigo en el País Vasco, Galicia y Asturias, mercados en los que desarrolla su actividad a través de los operadores Euskaltel, R y Telecable.

El Grupo Euskaltel define un Sistema de Gestión que, desde un enfoque de empresa comprometida con la gestión avanzada y la sociedad y su entorno, integra las políticas del grupo, que se despliegan en los procesos necesarios para la obtención de la satisfacción del cliente, el cuidado y mejora del medio ambiente, la gestión de todo tipo de riesgos y el bienestar de las personas.

Con esta política, adquirimos el compromiso de mejorar continuamente nuestros productos, servicios y formas de trabajo, y el propio sistema de gestión para mejorar nuestro desempeño en todos los ámbitos.

Con esta política, en el Grupo Euskaltel nos comprometemos:

- Al cumplimiento de la legislación, reglamentación y otros requisitos que nos sean de aplicación, así como de otros compromisos que suscribamos en el desarrollo del Sistema de Gestión.
- A mantener una actitud de cercanía y escucha permanente del mercado y resto de grupos de interés que nos permita identificar y realizar las propuestas de valor necesarias para cubrir de la manera más enriquecedora posible sus expectativas y necesidades.
- A la protección del medio ambiente, a combatir el cambio climático y a la prevención de la contaminación, así como a desplegar políticas para reducir el impacto ambiental de las actividades de la compañía y a fomentar las buenas prácticas ambientales.
- A prevenir los daños, y el deterioro de la salud de las personas que trabajan para la compañía, así como a proteger y promover los ambientes de trabajo saludables, proporcionando la información y formación necesarias para conseguir que éstas se impliquen y participen en el cumplimiento de las normas e instrucciones existentes y en la realización de propuestas de mejora.
- A desplegar un sistema de gestión basado en el desarrollo sostenible: económico, ambiental y social.
- A que nuestras actuaciones estén alineadas con los valores establecidos en la compañía.
- A desplegar unos objetivos en todos los ámbitos aplicables que sean coherentes con esta política y a revisarlos y adaptarlos periódicamente.
- Al impulso de la innovación internamente y hacia el mercado y a la utilización de las tecnologías más apropiadas en cada momento para el cumplimiento de nuestra misión.

Esta política es de aplicación a todas nuestras actividades, productos y servicios, en todos nuestros lugares de trabajo; es comunicada a toda la organización y puesta a disposición de nuestros clientes, accionistas, partes interesadas y público en general, siendo revisada periódicamente, asegurando así que es apropiada para el Grupo Euskaltel en cada momento.

Alberto García Erauzkin
Presidentea - Presidente

Derion, 2017ko urrian

Derio, octubre de 2017